

Margaret Price izango da gaur Arriagan Musikaldiaren barruan

Orkestra Sinfonikoarekin ariko da Matxavarianiren zuzendaritzapean

Margaret Price bakarlari irlandarrak Mahler-en obra bat abestuko du gaur arratsean Bilboko Arriaga antzokian Musikaldiaren barruan. Price Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin batera ariko da Vakhtang Matxavariani georgiarraren zuzendaritzapean.

G. AGIRRE / BILBO

Galesen jaiotako Margaret Price bakarlariak, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin batera, eta Matxavarianik zuzendurik, Mahlerren lau zenbakiko sinfonia eskainiko du gaurko kontzertuaren lehenengo zatian. Bigarrenen, berri, Wagnerren 'Oihanaren zurrumurruak' obertura edo 'Sigfrido' opera eta Mahlerren 'Rückert Lieder' abestu-ko ditu.

Gaurko kontzertua zuzenduko duen Vakhtang Matxavarianiren hitzetan, Gustav Mahler konpositorea «Straussekin batera XX. mendeko azken erromantikoa da, oso intimista eta sentibera». Bilboko Orkestra Sinfonikoak, Tbilisiko zuzendariaren hitzetan, «Europako hegoaldean egon arren, potentzial handia dauka eta oso musikari onak ditu, batez ere, kontzertinoak». Hala ere, Bilboko Orkestrari «diziplina musikala edo lan sistematikoa



Matxavariani eta Margaret Price atzoko prentsaurrekoan. XOUSE SIMAL

falta» zaiola azpimarkatu zuen.

Matxavariani Georgiako Orkestrako musika zuzendari iraunkorra da eta 1992-93 denboraldian, bi kontzertu zuzendu ditu Saint-Etienneko Massenet Jaialdian eta 'La Dame de Pique' Bastilleko Operan, Moskuko kontzertuez gain.

Operako bakarlari gisa ezagutua den arren, Margaret Pricek argi utzi du honako hau: «Opera eta *lieder*-ak abestu izan ditut txandaka. Hemezortzi urte besterik ez nituenen Mahlerren obra bat abestu nuen, horregatik niretzat ez da berria».

Pricek ustez, «oso zoriontsua naiz estilo ezberdinak tarte-
katu ditudalako. Bakarlari askok gaztetan opera bakarrik kantatzen dute, eta oso lodi eta zahar daudenean, *lieder*-ak abesten hasten dira. Baina, aldaketa oso zaila da, estiloa ezberdina da eta ikastea oso zaila da».

Gaur egun Verdiren abeslari-rik nabarmenetakoa den Pricek gaelikoaren ezagutzak beste hizkuntza batzuetan kantatzeko orduan dakarren abantaila nabarmendu zuen. «Gaelikoa oso hizkuntza musikala da eta gaelikoa menperatuz gero errazagoa da

✓ Margaret Price:
«Gaelikoa oso hizkuntza musikala da eta gaelikoa menperatuz gero errazagoa da italieraz, frantsesez edo alemanez abestea».

italieraz, frantsesez edo alemanez abestea. Ingelesak diptongo asko ditu, horregatik zailagoa da beste hizkuntza batzuetan kantatzea». Adituen ustez, Pricek bikain kantatzen du edozein hizkuntzatan.

Bakarlari irlandarrak mundu zabaleko opera antzoki nagusietan dihardu gaur egun, Milane-ko La Scalan, Vienako Staatso-perren, Covent Gardenen eta abarretan. Price orkestra lagun duen bakarlari gisa ospetsua da eta garaiko zuzendaririk bikainenetako batzuekin egin du lan. Oso ezaguna da errejitatzaile modura eta oso ospetsua bere errepertorio zabalagatik, hizkuntza askotan kantatzen baitu.

Price 'Bayerische Kammer-sangerin' bat da eta BE saria eskuratu zuen orain dela 11 urte. 1988. urtean musikako doktore izendatu zuen Galeseko Unibertsitateak eta aurtun Inperio Britainiarreko Dama izendatu dute.

Keñuk sorkuntza lehiaketa irabazi zuen

L.E. / DONIBANE GARAZI

Keñu Donibane Lohizune Ziburuko taldeak irabazi zuen igande arratsaldean Donibane Garazin Euskal Kultur Erakundeak antolatu zuen Euskal Sorkuntza Gaztearen I. Zeingehiagoka. Mister Saguak Hazparneko rock taldeak bigarren saria jaso zuen.

Publikoaren eskasa nabaritu zen joan zen igandeko lehiaketan. Taldeen lagunak ezik, jende gutxi mugitu zen sargoriak itozten zuen Vauban zinema gelara. Aukeratuak ziren bost taldeek interesa sortzen ahal zuten beren ezberdintasun nabariarengatik: Manex Muturbeltz kantaria, Garaziko Exarren ahizpak, Pantxoa Bergara, Keñu taldea eta Mister Saguak.

Bakoiitzak estilo ezberdina aukeratu zuen. Epaiaketaren orduan zailtasunak zitezkeen alderatu ezinen aukeratzeko. Argi da behintzat epaimahaiak, bost kantari profesional, musika irakasle eta hiru administrazio ordezkariak beren aukera musika

lantua zekartzaten taldeei buruz itzuli dutela.

Irabazlearen Saria, konpakto baten grabatzeko ahalatasuna da, sei kantarekin, baldintza profesionaletan eta kantari ezagun baten babespean. Keñu taldeari egokitu zaio. Mister Saguak hard rock talde hazpandarrari EKEK kontzertu batzuk eskainiko dizkio. Sari horiek taldeentzat gauza preziazgarriak dira, denek grina bera agertu baitute, edo grabaketa baten ahalatasuna edo tauletan ibiltzearena.

Serge Lonca saratarrak, Manex Muturbeltz izenarekin taula gaineko benturari lotu zitzaion duela bi urte. Ikastolako irakaslea igandean lehendabiziko aldiz talde batekin aritu zen. Garaziko Etxarren ahizpak Iruriko Euskal Kantu Txapelketan irabazle atera ziren. Isabelle, Juani eta Marie-Estherrek talde atsegina osatu zuten jazz munduan, beren aitarren hitzak kantatuz.

Hirugarren lehiatu zen Keñu taldeak bere profesionaltasuna agertu zuen. Aspaldian elkarre-



Hazparneko Mister Saguak rock taldeak bigarren saria jaso zuen. L.E.

kin dabilta sei musikariak, musika garaikide rock gozo baten antzekoekin. Kanta oso lantuek aurkeztu zituzten: horrek egin zukeen besteekiko diferentzia.

Pantxoa Bergara bardo baten itxurarekin agertu zen berriro, bi musikari lagunekin. Parisera

joan lagun bati eskaini kanta ederra eman zuen. Datozen urteetako euskal kantagintzako izen nagusietarik izango dela nabari zen igandean. Azkenik aritu zen Mister Saguak, Hazparneko hard rock taldeak bere taula gainarako jeinutasuna agertu zuen.

**Nafarroako
Jaialdietako
Margolaritza
Lehiaketak badu
irabazlea**

J. K. LAKASTA / IRUÑEA

Eduard Resvier Kataluniako margolariak 'Nafarroako Jaialdiak XI. Margolaritza Lehiaketa' irabazi du 2 x 2 metroko ize-
nik gabeko olio bati esker. Beltza eta txuria dira nagusi forma geometrikoekin osatutako olio horretan. Lehiaketako epaimahaiak atzo plazaratu zuen erabakia, eta Jose Antonio Es-lava epaimahaiakideak azaldu zuenez, koadroaren ezaugarri horiek berebiziko garrantzia izan dute erabakian. «Lana berezia da oso. Eduardek ilunaren eta argiaren arteko oreka lortu du, iluntasunak txuria dena jaten du, erabat jan gabe. Kaosean oreka ezartzeko nahia sumatzen da olioan. Hiltzean dagoen argi motel baten bidez lortu nahi du oreka hori, baina argi motel hori argi garrantzitsuago baten iragarpena izan daiteke. Horrek nolabait oreka mugikorra isladatzen du, oreka ezegonkorra. Koadroa beraz oso ederra da».

Eduard Resvier 24 urteko Bartzelonako gazteak bi miloi pezeta jasoko ditu bere olioaren truke. Resvierrek dagoeneko hainbat talde erakusketatan hartu du parte, eta behin baino gehiagotan bakarka egin ahal izan ditu erakustaldiak. Koadro irabazlea egun bakarrean margotu zuen, «baina egitura geometrikoak aurretik landuta zeuden». Berak atzo azaldu zuenez, koadro irabazlearen ez zuen kaosa orekatu nahi, bere helburua kaosa ulertzea omen zen. «Kaosa ulertzen saiatu naiz, oreka bilatu gabe. Pentsaera berri batekin bat datorren koadroa da. Orekatik ihes egiten duen ideologia da, diferentziak eta onartzen dituen ideologia». Kataluniako margolariak azaldu zuenez, gauditu egin du margotzeko era hori, eta beste bide batzuetan barrena abiatu da.

Aurtengo Nafarroako Jaialdiak Margolaritza Lehiaketan orotara 319 lan aurkeztu dituzte, eta antolatzaileen esanetan aipagarria da oso obra gehienek kalitate ona eta tamaina handia. Epaimahaiak 319 margo horien artean 32 hautatu zituen, eta horietatik sei erosteko aukera gorde zuen. Azkenean, esan bezala, Resvierren lana atera zen garaile.